


PARKE BETEA





Edizioa: ALBOAN

Avenida Barañain, 2– 31011 Pamplona
Tel.: 948 23 13 02

Padre Lojendio, 2–2º – 48008 Bilbao
Tel.: 944 151 435

Andia, 3 – 20004 Donostia–San Sebastian
Tel.: 943 275 173

Monseñor Estenaga, 1 – 01002 Vitoria/Gasteiz
Tel.: 945 202 676

www.alboan.org
alboanna@alboan.org

Testuaren Egilea: Cruz Manuel Noguera González

Ilustratzaile: Cruz Manuel Noguera González

Diseinua eta maketazioa: HORIXE Diseño

Itzulpena: Etymon Solutions

Inprimatzea: Huarte Gráfica



**PARKE
BETEA**



Bazen parke handi bat, oso-oso handia,
eta ez zidaten utzi nahi bertan sartzen.
Burdin-sare batek inguratzen zuen eta atea
giltzarrapo erraldoi batekin itxita zegoen.



Barruan jolasten ari ziren haurrek
giltzarekin itxita zeukaten,
eta kartel bat zeukaten jarrita hau esateko:
Parkea beteta dago!



-Irekiko didazue, mesedez?

-Ez, ez, ez -esan zuten haiek- zuk betaurrekoak erabiltzen dituzu...
eta gainera, ez daukazu guri zer eskaini.

-Badaukat zer eskaini -esan nuen- begira, begira...
makila batzuk ditut, eta zuekin parteka ditzaket.

-Horrek ez du ezertarako balio... zoaz, zoaz hemendik oso urruti.



Orduan eseri egin nintzen, oso triste,
parketik haurren bat ateratzeko zain, haren lekua hartzeko.
Handik gutxira haurtxo bat etorri zen, sari batekin jantzita.
Hark ere sartu nahi zuen.




-Irekiko didazue mesedez?

**-Ez, ez, ez -esan zuten haiek- oso arraro
zoaz jantzita... gainera, ez daukazu guri zer eskaini.**

**-Badaukat -esan zuen hark- soka biribilki bat daukat...
eta zuekin parteka dezaket.**

-Horrek ez du ezertarako balio... zoaz, zoaz hemendik oso urruti.



Orduan eseri egin zen, ea norbaitek irekitzen zion.
Handik gutxira, kaleko haur bat iritsi zen,
oihal zati batzuk ekarriz.

-Irekiko didazue mesedez? -Ez, ez, ez -esan zuten haiek-
zikina zaude... eta, gainera, ez daukazu ezer guri emateko.

-Bai, badaukat -esan zuen hark- oihal zati batzuk ditut...
eta zuekin parteka ditzaket.

-Ez, ez, ez. Horrek ez du ezertarako balio...

Alde! Alde! Zoaz hemendik oso urruti.

Orduan, kaleko umea gure alboan eseri zen oso triste.





Ondoren, bere poltsan koloretako paper batzuk
zituen neskato bati iritsi zitzaion txanda.
Beste hizkuntza batean hitz egiten zuen,
baina haiekin komunikatzeko ahalegina egin zuen:

-Atea ireki ahal?
-Ez, ez, ez -esan zuten haiek- gaizki hitz egiten duzu...
eta, gainera, ez daukazu ezer guri emateko.
-Nik bai eduki. -esan zuen hark-
Begira, zetazko paperak... nik eduki zuek eduki.
-Horrek ez du ezertarako balio... zoaz, zoaz hemendik oso urruti.





Eta gure alboan eseri
zen oso triste.



Azkenik, beste neskatxa bat iritsi zen,
oso beltzarana eta ile oso kizkurrekoa.



-Irekiko didazue mesedez?

-Ez, ez, ez -esan zuten haiek-

ile kizkurra duzu... eta, gainera, ez duzu guri zer eskaini.

-Bai. Badaukat-esan zuten neskak, eta saskian zituen frutatxo zuri batzuk atera zituen. -Eta zer da hori? -galdetu zuten-

Caujaro izeneko frutatxoak dira... eta zuekin parteka ditzaket.

-Caujaro? Zer fruta arraro da hori? Aj! Horrek ez du ezertarako balio... zoaz, zoaz hemendik oso urruti.



**Eta hura ere itxoitera eseri zen.
Baina ordubetera, ikusirik parketik ez zela inor
ateratzen, gure artean elkartzea eta bakoitzak zituen
gauzekin han bertan jolastea erabaki genuen.**



**Eta pentsatu genuen:
zertarako erabil daitezke makilatxoak,
soka biribilkia, oihal zatiak,
caujaro fruituak eta koloretako paperak?
-Badakit, badakit! -esan zuen saria zeraman
neskak- Egin dezagun kometa bat.**

- Nire herrian, kometei papagayo deritze -esan zuen ile kizkurreko neskatxak.
- Nirean, patang -esan zuen saria zeraman neskak.
- Nirean kite esan -azaldu zuen beste hizkuntza batean hitz egiten zuen neskak.



- Eta nirean papalote esaten diegu -azaldu zuen kaleko umeak, eta guztiok barrez hasi ginen.

Orduan, makilatxoak elkartu, sokarekin lotu,
koloretako paperak jarri,



caujaroaren zuku likatsuarekin itsatsi,
oihal zatiak lotuz buztan luze bat erantsi...

**Eta hegaka jarri genuen
parkearen inguruan korrika
egiten genuen bitartean.**







**Eta, orduan, giltzarrapoaren atzean itxita jolasten ari ziren haurrak,
gure kometa airean hegaka ikusi zutenean,
aho zabalik geratu ziren zeruan biraka zebilen papaloteari begira.**




Hortaz, haietako bat ateko giltzarrapoa kentzera etorri zen korrika, eta beste batek azkar kendu zuen hesiko kartela eta horren ordez beste hau idatzi zuen: Parkea irekita dago jolastu nahi duen edonorentzat.

-Etorri, etorri... -esan zuten haiek-

**Eta atea irekitzean aire bolada bat sartu zen, magia bezala,
eta are gehiago altxatu zen patanga**



**Eta esaten dutenez, orduko hartatik...
parke horretan ez zitzaien begiratzeko desberdintasunei,
baizik eta bakoitzak eskaintzeko zeukanari soilik.**



Sakontzeko gomendioak

Ipuinaren helburu nagusia da pertsona guztien balioa aitortzea eta harrera- eta inklusio-gaitasuna sustatzea.

Harrera eragozten duten oztopoei buruz hausnartzea.

Aniztasunaren aberastasunari balioa ematea.

Komeni da haurrak biribilean jartzea, giro atsegina sortzeko.

Ipuina kontatu ahala, irudiak erakutsiko ditugu.

Elkarrizketan, garrantzitsua da haur guztiek parte hartu ahal izatea eta lasaitasunez eta konfiantzaz adierazi ahal izatea nahi dutena.

Irakurketa amaitzean, irakurmena indartzeko elkarrizketa bat egingo dugu:

Zer pertsonaia agertzen dira istorioan? Zer gertatzen da parkean? Nor ari da jolasten? (garrantzitsua da haur guztiak barruan ez dau dela ohartzea) **Zer gertatzen da parkean sartu nahi duten haurrekin?**

Zergatik ez diete uzten sartzen? Zer esaten diete?

Zer egiten dute kanpoan dauden hurrek? Zer eraikitzen dute? Nola deitzen diote egin duten horri?

Nola amaitzen da istorioa?

Istorioan agertzen diren hitzetako batzuk azalduko ditugu:

- **Jakin nahi duzue sari bat zer den?**

Ba Indiako soineko tradizional bat da. Izenak “oihal zerrenda” esan nahi du.

Gorputz osoan biltzen den oihala zati bat delako esaten diote horrela.

- **Inoiz entzun al duzue cauvaro izeneko fruta-txo horren berri?**

Erdialdeko Amerikan hazten den mahats moduko frutatxo bat da. Gozoa eta itsaskorra da, horregatik erabil daiteke kola gisa.

- **Zer iruditu zaizkizu kometari emandako izenak?**

Venezuelan papagayo esaten zaio, Mexikon papalote, Indian patang, eta oraindik badira beste hainbat: Txilen volatín, Argentinan barrilete, eta abar.

Sentimenduak lantzen ditugu:

- **Zer iruditu zaizue istorioa? Zer sentiarazi dizue?**

- **Zuen ustez, nola sentitzen dira barrura sartzen uzten ez dieten haurrak? Nola sentitzen zarete zuek norbaitek ez badizue zer-baitetan jolasten uzten?**

- **Zer egiten dute kanpoan dauden haurrek hobeto sentitzeko?** (bakoitzak daukana jartzen du eta guztien artean zerbait eraikitzen dute)
- **Nola sentitzen dira haur guztiak istorioaren amaieran?**

Hitzekin lan egiten dugu: JARRI, PARTEKATU, HARTU

Errealitatean gertatzen denari buruz hausnartzen dugu:

- Noizbait gertatu al zaizue ez dizuetela zerbaitetan jolasten utzi?
- Noizbait ez diezue utzi beste haur batzuei zuen taldean jolasten?
- Zer egin dezakegu inor gaizki ez sentitzeko?
- Zer gertatzen da bakoitzak daukana jartzen duenean?

Jarduerak:

1. Gorputz-adierazpena: istorioaren dramatizazioa edo antzezpena. Haurrek ipuina antzeztu dezakete.
2. Adierazpen plastikoa: kometa bat (papalote bat...) koloreztatzea. Marrazki bat eman-go diegu margotzeko.
3. Hizkuntza jarduerak: adibidez, irakurmena sustatzeko proposatutakoak; hitz berriak ikastea, eta abar.

4. Adierazpen logiko-matematikoa: zenbat haur daude parke barruan? Zenbat daude kanpoan? Elkartzen direnean, zenbat daude?

Amaierako jarduera:

Kometa (papalote, papagayo, patang) bat egitera (edo eramatera) animatuko ditugu, ikastetxeko jolastokian hegaka jartzeko, eta haur guztiek tarte batez jolasteko. **ADISKIDETASUNAREN KOMETA DEITU DIEZAIKEGU.**

Familiak etxean kometa egitera eta ikastetxera eramatera gonbida ditzakegu, halaber.







ONG JESUITA FUNDATZIOA

www.alboan.org